


Euskal AEko eraikuntzaren sektoreko jarduera % 11,5 hazi zen 2022ko hirugarren hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta % 3,2ko igoera izan da

Eustaten datuen arabera, 2022ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal AEko eraikuntzaren sektoreko jarduera, prezio arruntetan, aurreko urteko hiruhileko berekoa baino % 11,5 handiagoa izan da. Aurreko hiruhilekoaren aldean, urtaro-ondorioak zuzendu ondoren, jarduera % 3,2 igo da prezio arruntetan.

Euskal AEko eraikuntzaren koiunturako indizea. Urte- arteko aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako indizea

Hiruhileko honetako urte arteko hazkundera honako bi arrazoi hauengatik gertatu da: batetik, *Etxegintza* azpisektoreak urte arteko % 11,2 egin du gora eta, bestetik, *Obra Zibilak* % 13,0 egin du gora, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean hori dena.

2022ko lehen hiru hiruhilekoetako metatuan, sektoreko jarduerak % 9,1eko igoera izan du 2021. urteko aldi metatu berarekin alderatuta. *Etxegintzaren* kasuan, urteko lehen hiru hiruhilekoetako hazkunde metatua % 8koa izan da, eta *Obra Zibilarena*, berriz, % 16,5koa.

Sektoreak 2022ko hirugarren hiruhilekoan izan duen jarduera aurreko hiruhilekoarekin alderatuz gero, urtaro-ondorioak zuzendu ondoren, indizea % 3,2 igo da termino nominaletan edo prezio arruntetan. *Etxegintzako* jarduerak % 2,9ko hiruhileko arteko bilakaera positiboa izan du, eta *Obra Zibilean* % 5,4ko hazkundea.

Euskal AEko eraikuntzaren koiunturako indizea. Aldakuntza tasak (%). Uneko prezioak (p). 2022/III

	Egutegiaren eragina zuzenduta		Desestacionalizatua
	t/t-4	At/At-1	t/t-1
Produktzioaren indizea	11,5	9,1	3,2
Eraikinak	11,2	8,0	2,9
Obra zibila	13,0	16,5	5,4
Landunkopuruaren indizea	0,7	1,6	-0,5

Oinarria 2015

(p)Behinbehineko datuak

At/At-1: t urteko lehen hiruhilekotik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

Data 2022ko Abenduaren 1a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako indizea

Langile enplegatuen indizea, 2022ko bigarren hiruhilekoaren aldean % 0,5 jaitsi ondoren, 2021eko hirugarren hiruhilekokoa baino % 0,7 handiagoa izan da. Azkenik, 2022ko lehen hiru hiruhilekoetan, langile enplegatuen kopurua % 1,6 handiagoa izan da 2021eko aldi metatu berean izandakoa baino.

Informazio oharra

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hiruhileko honetako indizea lagingaren % **94,25**eko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62